LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2026-11-02 **BILERA ZENBAKIA:** 11

ORDUA ETA LEKUA: 16:00 Itsasondoko udala

PARTEHARTZAILEAK: Elena (Udal zinegotzia), Erkuden eta Maider.

LANDUTAKO GAI ORDENA

Abenduko bilera:

Ongizate batzordeko hurrengo bilera abenduaren 15ean, asteartean, izango dugu arratsaldeko 17:00etan. Beti bezela deialdi irekia izateaz gain, deialdia ahoz aho zabalduko dugu, gaiarekiko pertsona aproposak iruditzen zaizkigunak gonbidatuz: ongizate sarea, Emagin, Biziola, harrera sarea,…

Batzordetik dinamika ezberdina proposatuko dugu eta ideiak jasotzeko aukera izango dugu.

Jostailu bilketa:

Azaroaren 21ean jostailu bilketa antolatuko dugu. Jasotzen duguna frontoiko txokoan izango dugu bi astez, Amaiaren beharraren arabera, eta jarraian Ordiziko Caritasera bideratuko ditugu.

Azaroaren 25a:

Kontzentrazioa azaroaren 25ean arratsaldeko 17:30tan herriko plazan. Aurreko urteetan bezela, batzordetik M8 pankarta kendu, A25 pankarta kontzentrazioara jeitsi eta A25 pankarta udaletxeko balkoitik zintzilikatzeko ardura hartu dugu. Ongizate sarean mezua zabaldu eta laguntza eskatuko dugu.

Azoka:

Azaroaren 27an baserritar jantzien azoka antolatuko dugu eta banatu gabe geratzen diren arropak eskolan jasoko dituztela komentatu digute.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Danel abisatu		Maider
Kartelak eta deialdiak		Erkuden
Jabi kutxak		Maider
Jostailuen bilketa Amaiari azaldu		Maider
Caritas		Maider
Abenduko batzordera gonbidapenak		Denok

HURRENGO BILERA
Hurrengo bilera: abenduaren 15ean, 17:00etan, udaletxeko bigarren solairuko bilera gelan.